

## ARIKETAK

### 1 Baldintzaren ingurukoak

#### JARRI ESALDIOK BEHAR DEN MODUAN:

1. Onena, txikitan hiru hizkuntza ikastea, ze ikasten duzu txikitan eta gero ez zaizu ahazten.  
\_\_\_\_\_
2. Grafiko bat konpontzen hasten zara eta denbora gehiago egiten da berriz berri hasita baino.  
\_\_\_\_\_
3. Esan zidan goizeko bederatzietarako hemen egongo litzatekeela.  
\_\_\_\_\_
4. Mirenek uste zuen azterketa erraz gaingituko lukeela.  
\_\_\_\_\_
5. Zu handia bazara, ni handiago.  
\_\_\_\_\_
6. Alavesek jokalaria onak kontratatu baditu, Errealak ez da atzean gelditu.  
\_\_\_\_\_

#### BERRIDATZI:

1. Gaur egun ordenadorea erabiltzen ikasi ezean, jai dago.  
\_\_\_\_\_, bestela, \_\_\_\_\_
2. Ez badugu alkatearekin hitz egiten, ez dugu jakingo gure lurra zerfarako behar dituzten.  
\_\_\_\_\_, osterantzean, \_\_\_\_\_
3. Hara, munduan den-denok berdintsuak gara lan kontuan. Eta errazena egiten dugu baldin eta ez bagaituzte behartzen.  
\_\_\_\_\_, non \_\_\_\_\_
4. Egunak urte iruditzen zaizkit, ez bazaitut ikusten.  
\_\_\_\_\_, non \_\_\_\_\_
5. Bidali e-postaz zerrenda, ze korreoz galdu ere egin daiteke.  
\_\_\_\_\_ -enean ere.

# A R I K E T A K

2

## *Zalantza-dantza*

Urtebete pasa da aldizkariarekin *Zalantza-dantza* liburuxka banatu genuenetik, baina, hala ere, iturria ez da agortzen. Ostera ere, begira, zenbat ariketa ekarri dugun argitalpen hartako aholkuak gogorazteko!

### BERRIDATZI ESALDIOK:

1. Opor garaian, auto-ilara itzelak izaten dira autobideetako **peajeetan**.  
\_\_\_\_\_
2. Andre zahar bat erori da kaitik uretara, baina ez da ito, hura erreskatatzera berehala **bota gara** eta.  
\_\_\_\_\_
3. Udan **basamortu batean bilakatzen** da gure herria.  
\_\_\_\_\_
4. Ixtekotan izan ginen, baina zuzendari berria heldu eta urtebete gabe, **enpresa moderno eta eraginkor batean bihurtu** zen gure lantegi zaharra.  
\_\_\_\_\_
5. Arraioa! Zuen nagusiak baimena guztioi ematen dizuen **bitartean**, geureak bati ere ez.  
\_\_\_\_\_
6. Presaka gabiltzanean, berehala **amaitzen** dugu bilerako **aztergaiekin**.  
\_\_\_\_\_
7. **Liburuarekin amaitzen** duzunean,,, utziko al didazu nik ere irakurtzeko?  
\_\_\_\_\_
8. Eskerrak etorri zaren! **Faltan bota** dugu sukaldean duzun trebetasuna.  
\_\_\_\_\_
9. Azken hilabetean, nahi beste bilera **burutu** dugun arren, ez dugu ezertxo ere erabaki.  
\_\_\_\_\_
10. Aurtengo lan-hitzarmenean hainbat berrikuntza daude, baina ordutegiari **dagokionean**, lehengo lepotik burua.  
\_\_\_\_\_
11. **Derrigorrez** bete behar da erabakitakoa, bestela, hutsaren hurrengoia izango da hitzarmena.  
\_\_\_\_\_
12. Asteburuan, mendizale bat **desageru** da Pirinioetan.  
\_\_\_\_\_
13. Udalerriko elkarte **desberdinak** alkatearen proposamenaren aurka azaldu dira.  
\_\_\_\_\_
14. Ganorarik ere ez duzu! Beti **tontoa egiten**...  
\_\_\_\_\_
15. Orain arte ez da gure hotelean salmonellosi kasurik **eman**.  
\_\_\_\_\_

# A R I K E T A K

## ZUZENA EDO EGOKIENA AUKERATU:

1. a) Oporretan **bolondres** ibiliko naiz gobernuz kanpoko erakunde batean.  
b) Oporretan **boluntario** ibiliko naiz gobernuz kanpoko erakunde batean.  
c) Oporretan **borondatezko** ibiliko naiz gobernuz kanpoko erakunde batean.
2. a) Ez dugu amore emango, eta nahi duguna lortu arte **borrokatuko dugu**.  
b) Ez dugu amore emango, eta nahi duguna lortu arte **borrokatuko gara**.  
c) Ez dugu amore emango, eta nahi duguna lortu arte **egingo dugu borrokan**.
3. a) Ez ziren batere nekatu, eta ordu txikiak arte **dantzatu ziren**.  
b) Ez ziren batere nekatu, eta ordu txikiak arte **dantzatu zuten**.  
c) Ez ziren batere nekatu, eta ordu txikiak arte **egin zuten dantzan**.
4. a) Umeak elkarrekin **jolastu ziren** denbora osoan, behin ere haserretu barik.  
b) Umeek elkarrekin **jolastu zuten** denbora osoan, behin ere haserretu barik.  
c) Umeek elkarrekin **jolas egin zuten** denbora osoan, behin ere haserretu barik.  
d) Umeak elkarrekin **jolasean ibili ziren** denbora osoan, behin ere haserretu barik.
5. a) Lasterketa batean parte hartzen nuen lehenengo aldia zen arren, **bosgarren** gelditu nintzen.  
b) Lasterketa batean parte hartzen nuen lehenengo aldia zen arren, **boskarren** gelditu nintzen.  
c) Lasterketa batean parte hartzen nuen lehenengo aldia zen arren, **bostgarren** gelditu nintzen.
6. a) Udan irakurtzeko **laupabost** liburu erosi dituzula? Bada, nik **bospasei**.  
b) Udan irakurtzeko **laupabost** liburu erosi dituzula? Bada, nik **bostpasei**.  
c) Udan irakurtzeko **lauzapabost** liburu erosi dituzula? Bada, nik **bospasei**.  
d) Udan irakurtzeko **lauzapabost** liburu erosi dituzula? Bada, nik **bostpasei**.
7. a) Ez nago ziur, baina **dagoeneko** argitaratuta izango dira azterketako emaitzak.  
b) Ez nago ziur, baina **honezker**o argitaratuta izango dira azterketako emaitzak.
8. a) Begira: etxeko argiak piztuta daude. **Dagoeneko** etxean dago.  
b) Begira: etxeko argiak piztuta daude. **Honezker**o etxean dago.
9. a) Poz-pozik agertu zen aterkiarekin baina beranduegi zen, **dagoeneko** blai eginda geunden.  
b) Poz-pozik agertu zen aterkiarekin baina beranduegi zen, **honezker**o blai eginda geunden.  
c) Poz-pozik agertu zen aterkiarekin baina beranduegi zen, **ordurako** blai eginda geunden.
10. a) Biziki maite ditut liburuak: gustura baino gusturago egingo nuke lan **liburudenda** batean.  
b) Biziki maite ditut liburuak: gustura baino gusturago egingo nuke lan **liburu denda** batean.  
c) Biziki maite ditut liburuak: gustura baino gusturago egingo nuke lan **liburu-denda** batean.
11. a) Ez nago batere pozik egin didaten harrerarekin, horregatik jo nahi dut **departamenduko** buruarengana.  
b) Ez nago batere pozik egin didaten harrerarekin, horregatik jo nahi dut **departamentuko** buruarengana.
12. a) Frantzia aldean emango ditugu oporrak, Loireko **departamenduan**.  
b) Frantzia aldean emango ditugu oporrak, Loireko **departamentuan**.
13. a) Iragan dira hauteskundeak eta akabo **portzentaien** dantzak.  
b) Iragan dira hauteskundeak eta akabo **portzentajeen** dantzak.  
c) Iragan dira hauteskundeak eta akabo **ehuneko**en dantzak.
14. a) **Ehundaka** milioi xahutu dituzte komunikabideetan, baina alferrik: jendeak ez du iragarritakoa erosi.  
b) **Ehunka** milioi xahutu dituzte komunikabideetan, baina alferrik: jendeak ez du iragarritakoa erosi.
15. a) **Dokumentoaren eranskinean** azaltzen da erosteko baldintzak zein diren.  
b) **Dokumentuaren eranskinean** azaltzen da erosteko baldintzak zein diren.  
c) **Dokumentoaren eraskinean** azaltzen da erosteko baldintzak zein diren.  
d) **Dokumentuaren eraskinean** azaltzen da erosteko baldintzak zein diren.
16. a) Lortu nahi zituzten helburuak ez dituzte lortu, baina inork ez du **erantzukizuna** hartu nahi.  
b) Lortu nahi zituzten helburuak ez dituzte lortu, baina inork ez du **erantzunkizuna** hartu nahi.
17. a) Etorrin batzuk **eraso dituzte** larunbat gauean.  
b) Etorrin batzuk **erasotu dituzte** larunbat gauean.  
c) Etorrin batzuei **eraso diete** larunbat gauean.  
d) Etorrin batzuei **erasotu diete** larunbat gauean.

# SOLUZIOAK

## 1 Baldintzaren ingurukoak

### JARRI ESALDIOK BEHAR DEN MODUAN:

1. Onena, txikitik hiru hizkuntza ikastea, ze txikitik ikasiz gero, ez da ahazten.
2. Grafiko bat konpontzen hasten bazara, denbora gehiago egiten da berriz berri hasita baino.
3. Esan zidan goizeko bederatzietarako hemen egongo zuela.
4. Mirenek uste zuen azterketa erraz gaitutuko zuela.
5. Zu handia izango zara, baina ni handiago.
6. Alavesek jokalaria onak kontratatu ditu, baina Errealak ez da atzean gelditu.

### BERRIDATZI:

1. Gaur egun ordenadorea erabiltzen ikasi behar, bestela, jai dago.
2. Alkatearekin hitz egin behar dugu, osterantzean, ez dugu jakingo gure lurak zertarako behar dituzten.
3. Hara, munduan den-denok berdintsuak gara lan kontuan Eta errazena egiten dugu, non (eta) ez gaituzten behartzen.
4. Egunkak urte iruditzen zaizkit, non ez zaitudan ikusten.
5. Bidali e-postaz zerrenda, korreoz galduenean ere.

## 2 Zalantza-dantza

### BERRIDATZI ESALDIOK:

1. ordaintokietan
2. geure burua bota dugu
3. basamortu bilakatzen da
4. enpresa moderno eta eraginkorra bihurtu zuen
5. baimena guztioi ematen dizue, baina geureak bati ere ez.
6. berehala amaitzen ditugu bilerako aztergaiak.
7. liburua amaitzen duzunean
8. zure hutsunea nabari dugu sukaldian.
9. nahi beste bilera egin/izan dugun arren
10. dagokionez
11. nahitaez, ezinbestean, derrigorrean
12. galdu
13. hainbat elkarte / elkarte batzuk
14. beti tontoarena egiten
15. izan

### ZUZENA EDO EGOKIENA AUKERATU:

1. a
2. b eta c
3. a eta c
4. a, c eta d
5. a
6. c
7. b
8. a
9. c
10. b eta c
11. b
12. a
13. b, baina c hobe
14. b
15. b
16. a
17. c